

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun osasun zerbitzu publikoak kolapsatuta egotea normala da, eta gaixotasunak dituzten pertsonak alditan aldi joan behar dira azterketak egitera. Anemia, diabetesa edo bihotz- gaixotasunak dituzten pertsonetan ohikoa da odola askotan ateratzea.

Gailu hau horrelako gaixotasunak dituzten pertsonak izan dezaketen arazoak konpontzeko egin dugu: odol analisiak errazago, azkarrago eta modu erosoago batean egitea. Normalean, odol-analisiak egiteko odola atera behar izaten da eta batzuentzat hau mingarria edo deserosoa izan daiteke edo alergiaren bat kausatu dezake, baina gailu honek hau konpondu ahal du, odola atera gabe presio sentso berezi batzuekin odola aztertzen du.

Aparatu hau eramangarria denez edonon erabiltzeko aukera ematen du, gainera apartua erostrakoan aukera dago tresna gordetzeko estutze bat erostea. Estutze hori urari eta kolpeei erresistentea da. Horrek eragiten du gailua edozein lekutara eta edozein lekutan eramateko aukera ematen duela.

10-15 minutuko analisi baten ostean, odolaren osasun-egoera eta osagaien balioak erakusten ditu ehunekoetan (hemoglobina, plaketak, burdina, oxigenoa, etab.). Azkar batean. Gainera, gailu honek Osakidetzarekin konektatuta funtzionatzen du. Esate baterako, zure odolaren egoera txarra bada, medikuei automatikoki abisatuko zaie, eta medikuarengana joateko edo telefonoz hitzordua izateko aukera izango duzu.

Bestetik, gailu bakoitza pertsona bakar batek erabil dezake, zure datu pertsonalak gordetzen baitu eta ezin da beste inorekin partekatu. Horrela datuak seguru egoten dira.

Ondorioz, hau makina berritzaile bat da, odol analisiak azkar eta minik gabe egin daitezkeelako, eta egoera larrietan osasun-sistemak baino azkarrago erreakzionatu ahal duelako. Horretaz gain, teknologia moderno bat erabiltzen dugu, inon erabiltzen ez den teknologia.

Guk daukagun helburu handienetakoa tresna, kalitate ona izatea, erabilterraza izatea, segurua izatea, eramangarria eta txikia izatea, prezio ekonomiko bat izatea... Hona hemen faktore horiek:

PREZIOA

Farmazian nahiz online erosteko aukera dago. 50€ inguru kostua izango du. Baina medikuak gomendatuz edo aginduz gero eta farmaziara zure osasun txartelarekin joanez gero prezioa jaitsi egingo da (%20 inguru).

A priori oso garestia dela pentsatu ahal da, baina kontuan hartzen badugu 15-20 urteko iraupena duela, urtean gutxi gora behera 2,28571428571€ ordaindu behar da.

KALITATEA

Kalitate ona daukan produktua da, gutxi gora behera 15-20 urte inguru irauteko eginda dago.

DISEINUA

Aparatu hau pantaila bat du 3cmx3,5cm neurtzen duena. Pantailaren alde batean Uhala tamaina ezberdinetako izango da (Txikia = 15,2 cm baino gutxiagoko eskumuturreko tamaina, Ertaina= eskumuturraren tamaina 15,2 cm-tik 15,8 cm-ra eta handia = eskumuturraren tamaina 15,8 cm-tik gorakoa) eta uhal hau belkro batekin itxi egiten da. Hona hemen apartuaren argazki bat:



SEGURTASUNA

Segurtasun totala eskaintzen duen aparatua da. Izan ere, erabiltzeko ez duzu ezagutzarik behar eta ez dago modurik zuk kaltetuta ateratzeko.